

EAJk dio Ajuria Enea aurrekoa dela EHri gaitzespena eskatzea

PPk elkarrizketa foroari jarri baldintak kritikatu ditu Egibarrek

Agentziak / Madril


Lizarra-Garaziko Akordioaren aurkezpena egin zuten atzo Madrilén hitzarmena sinatu zuten taldeetako zenbait kidek, Prentsako Nazioarteko Klubak antolatuta.

ta. Haien artean izan zen Joseba Egibar, eta Espainiako Gobernua eta PSE kritikatu zituen. Gobernuari Euskal Herriko prozesuan ezer ez egitea egotzi dio, eta sozialistei alderdi guztiakin biltzeko proposamena asmo «elektoralistekin» egitea.

JOSEBA EGIBARREK atzo Madrilén esan zuenez, EHri indarkeria gaitzesteko eskatzea «Ajuria Enea aurreko» denborako eskaera da, eta «errealitatetik kanpo dago». Espainiako Gobernuak Juan Jose Ibarretxek proposatutako foro berriari jarritako baldintzez ari zela egin zituen Egibarrek adierazpen horiek. Izan ere, foro horretan parte hartzeko EHk indarkeria gaitzetsi behar duela adierazi zuten Angel Acebes Espainiako Administrazio Publikoetako ministroak.

Buruzagi jeltzaleak gogor kritikatu zuen PPren Gobernua. Euskal Herrian bizi den prozesuari ezer ez egitea egotzi zion, eta Mayor Orejaren jarrera salatu zuen horren ostean. Barne ministroa «suzirien artistatzat» jo zuen Egibarrek, eta presoei dago-kienez Gobernua «jarrera numantinoetan» itxi dela adierazi zuen. Esan zuen «taxuzko gobernu batek» ez duela inoiz baketzearen kudeaketa Barne ministroaren esku uzten.

Bestalde, alderdi guztiakin hitz egiteko sozialistek egin proposamena «elektoralista» dela adierazi zuen Egibarrek. Buruzagi jeltzalearen iritziz,



XOUSA SIMAL

Joseba Egibar, joan den otsailen eskainitako prentsaurreko batean.

«bakarrrik geratzeko beldur-rerengatik» egin dute proposamena. «Hilabete hauetan bidea egin ez duenak, orain entrenatu egin beharko du», adierazi zuen Egibarrek, suetenaren ondoren sozialistek erakutsi duten jarrerari buruz.

PSEk egindako proposamenari aitzakiak jarri arren, Egibarrek nabarmendu zuen

azken batean Lizarraren helburua euren proiektura ahalik eta jende gehiena hurbiltzea dela. «Elkarrizketatzea da gure helburua, gure artean dauden ezberdintasunak aztertzea», adierazi zuen.

Egibarrek batera, EAKo Rafa Larreina eta Begoña Lasagabaster, IUko Jose Navas eta HBko Esther Agirre eta Kepa Gordejuela izan ziren.

Gerestak hagin bat aterea zuen eta beste bat apurtua

Lehen autopsiak ez zituen datu horiek aipatzen

Aitziber Iartza / Donostia

JOSE LUIS GERESTAK hagin bat aterea eta beste bat puskatua zituela azaltzen du autopsiak; biak ere berriki erauziak, gainera. Datua lehen autopsiaren hasierako azterketan ez zuten aipatu mediku forentseak, ez baitzion ahoa aztertu. Aitzitik, familiaren medikuak autopsia egiteko orduan Gerestaren ahoa behatu zuen, eta bi forentseak —lehenengo autopsiako forentsea eta familiarena izan baitziren bertan— ikusi zuten eskuin aldeko behealdeko azkenaurreko hagina falta zaiola, eta zauriek adierazten dute hil baino denbora gutxi lehenago kendutakoa dela. Alboko hagina, haren aurrekoa, berriz, erabat apurtuta dago, hezurra ere bai. Kasu honetan ere zauriak berriki dira. Autopsiaren lehen datuen arabera, argi dago hagin horiek traumatikoki kenduak izan zirela, baina dio ez zirela erauzi eta puskatu kanpoko kolpe baten ondorioz, ez baitago kolpe aztarnarik. Hala, barrutik aterea eta puskatua izan zirela dio forentseak.

Eskuin aldeko behealdeko azken haginak ere badu manipulatu izan delako aztarnarik, baina kasu honetan apur bat ezberdina dira aztarna horiek. Izan ere, haginak zulo bat du, tornu batekin egina balitz bezalakoa, eta gainera laututa dago. Haginak ez du kentzeko ahalegina egin

izanaren zantzurik. Hagin horretako manipulazioak ere berriki dira.

Elementu horiek, beste hainbatekin batera, Madrilgo Insitutu Anatomiko Forentsera igorriak izan dira beharrezko ikerketak egiteko, eta ondoren amaituko dituzte forentseek euren txostenak.

Metala balarena ote den aztergai

Bigarren autopsian lehenean agertzen ez den beste datu bat ere ageri da, eta hori da Gerestaren buruan balaren metal aztarna bat zegoela. Aztarna hori balaren irteera zuloan, hau da, buruaren ezker aldean zegoen. Horrelakoak atzemate normala da, baina baita garrantzitsua ere, jakiteko zati hori ondoren Ertzaintzak gorputik ia 13 metrora atzeman zuen bala jaurtiarekin bat ote datorren. Hori jakin ahal izateko, Ertzaintzak aztarna Espainiako Poliziaren Bilboko Unitate Zientifikoari igorri dio.

Emaitzen zain

Espainiako Poliziaren emaitzak oraindik ez dira ezagunak. Datu honetaz gain, Espainiako Poliziak kasuarekin lotutako balistikako bestelako beste zenbait datu ere igorri behar ditu, eta laster egitea espero da. Bestalde, Insitutu Anatomiko Forentseak igorritako datuak ere laster plazaratuko dira.

24 lagun auzipetu dituzte 'Bizkaia komandoari' lotuta

Palacios epaileak prozesamendu autoa kaleratu du

Agentziak / Madril

TERESA PALACIOS Espainiako Entzutegi Nazionalako epaileak Bizkaia komandoko ustezko kideak eta laguntzailak auzipetu ditu, atzo jakitera eman zuen auto batean.

Palacios delitu hauek ezartzen ditu autoan: Bizkaia komandoko kide izatea, laguntzea, hiltzeko konspirazioa, armak izatea, lapurreta eta faltsuketa. Epaileak akusatzen ditu 1994an deuseztu zuten komandoa berregituratzeaz, eta hainbat kide bertaratzeaz.

Prozesatuen artean dago joan den martxoaren 9an Parisen atxilotutako Jose Javier Arizkuren Kantauri, eta autoak dio hark agindu ziela Iñaki Bilbao eta Inaxi Zeberiori taldea berrantolatzeke.

Laguntzeaz akusatu dituzten gehien delitua ustezko etakideei etxeetan gordetzen uztea da, autoak dioenez.

Palacios epailearen autoak banan banan zerrendatzen ditu, bestalde, ustezko komandokideek 1994. urteaz geroztik egindako delituak.